# LIBURUA NOLA ERABILI

Liburu hau hiru gai multzotan zatituta dago. Gai multzo bakoitza lau unitate didaktikoz osatuta dago.

Lehenengoan, geografia eremuak ikusten dira; bigarrenean, Aro Modernoko bilakaera historikoa aztertzen da; eta hirugarrenean, Aro Garaikidearen hasieratik xx. mendearen hasierara arteko bilakaerak aztertzen dira.

**Gai multzo** bakoitzak honako atal hauek ditu:

## ORRIALDE MOTIBATZAILE BIKOITZA

Orrialde motibatzaile bikoitza eduki multzoan ageri diren **edukien egiturarekin** eta horiei dagokien **irudiarekin.**




**Unitate didaktiko** bakoitzak honako atal hauek ditu:

## ORRIALDE MOTIBATZAILE BIKOITZA

Ezkerreko orrialdeak **Unitate honetan hauxe ikasiko duzu:** izeneko atala du. Unitate bakoitzean ageri diren edukien aurkibidea azaltzen da, eta, horrekin batera, azterturiko edukiekin zerikusia duen irudi bat.






## TESTU ORRIALDEAK

Orrialde horietan, unitateko funtsezko edukiak garatzen dira. Bertan ageri diren grafikoak, taulak, argazkiak eta testu osagarriak unitate didaktikoan landuriko oinarrizko edukien ulermena errazten laguntzen digute. Aldi berean, unitatean zehar, honako hauek planteatzen dira:

- ? galderak.
- K testuan azalduriko kontzeptu garrantzitsuenak.



## MAPA KONTZEPTUALA ETA ARIKETAK

Ezkerreko orrialdean, goiko aldean, **Mapa Kontzeptuala** ageri da, eta bertan unitateko eduki nagusiak azpimarratzen dira. Jarraian, unitateko edukiak lantzeko galderak ageri dira, sintesi gaitasuna hobetzeko eta unitate bakoitzean garaturiko edukiak elkarrekin erlazionatzeko. Ariketekin batera, argazkiak eta testu osagarriak ere ageri dira.



## AZKEN ORRIALDE BIKOITZA

Ezkerreko orrialdean, **Prozedura** izeneko atala sartzen da. Izaera geografikoa edo historikoa dituzten gaiei buruzko ikasketa eta lana errazten ditu prozedurak. Eskuineko orrialdean, **Ebaluazioa** izeneko atala sartzen da. Ebaluazioan, testuak aztertuko dira, mapen eta irudien iruzkinak egingo dira, kontzeptuak definituko dira... Azken atal honek, unitatean zehar lortu diren ezagutzak frogatzeko balio du.

